

## FUNTSEZKO JARDUERAK

- Ekintza garrantzitsuenak

Gure proiektuaren funtsezko jarduerak sortzen diren arazoak konpontzea eta plataformako jarduerak kudeatzea izango lirateke. Plataformako jarduerak gure kabuz kudeatuko genituzke, aplikazioa sortu zuena gure langilea delako eta bera delako aplikazioa hobeto ezagutzen duen pertsona. Sortzen diren arazoak guk ere konpondu ditzakegu. Adibidez, bezero batekin arazoren bat izan ezker, gurekin kontaktuan jarri eta arazoiari buruz hitz egingo genuke konponbide bat aurkitu arte. Horrela haienganako gure hurbiltasuna ikus dezaten. Publizitatea oso jarduera garrantzitsua da gure proiektua ezagutarazteko. Horretarako sare sozialak erabiliko ditugu gehien, instagram, twitter, facebook... guzti hauetan gure proiektua promozionatzeko kontu bat sortuko dugu, bertan aplikazioaren link-a jarriko eta bere erabileraren azalpen txikiak ere. Gainera Durangaldeko leku ezagunetan ere kartelak kokatuko ditugu, eskolen paretik, polikiroldegien sarreretan...

- Lehentasunak

Gure lehentasun handiena publizitatea da, hasieran jendeak ez du gure proiektua ezagutuko eta ez ditugu inolako bezerorik izango, horregatik proiektua aurrera joan dadin publizitate ona egitea behar dugu. Plataformako jarduerak izango ziren gure bigarren jarduera garrantzitsuenak, bezeroek ezin badute bere izena eman aplikazioan, edo lokalak ikusi, edo gurekin kontaktatu gure proiektuak ez du arrakastarik izango. Azkenik, oso garrantzitsua den beste jarduera bat, arazoak konpontzen jakitea. Argi dago funtsezkoa dela arazoak konpontzeko abilezia izatea, baina arazoak konpontzera heltzeko lehenengo bezeroak lortu behar ditugu eta beste bi jarduerak ez izan ezker ez genituzke bezerorik izango.

